Hierosolym'era etori ta indarez artu eban. Menelai igesi biar-ixan zan buruba zaintzeko.

Gero, jerosolindarak, arotzak, eta ez abendaidiak, bai-litzazan, gustija sakauten asi zan: gixon-emakumiak erailden ebazan, eta ogasunak atzitu ta ostu berentzakotuteko.

Agimena baña, eda aginduteko eskubidia, artu nai eta alegiñak eginda be, ezin jaritxi ixan eban; eta gerotxubago ostu ebazan ogasun aberaskijetaz bariro erbestera, amondarenera igesi zan.

V. NEKALA

Aberija saldu ta sakau ebanari lastertxe irabazi eban nekala eidu yakon. Bigarenez amondaren artera igesi zan-da lastertxe, arabaren jaun nagusijak atzitu ta espetaldu eban; eta berton espetxian gorijak jasan ebazan igesi zanarteraño.

Baña espetxetzaz buruba azkatu ba-eban, etxaken baña Jaun-goikua'ren sumiñari ta gixonen gorotuari igesi. Jaun-goikua'ri zingia ixan yakon; aberija saldu eban abendaidiak sakau, erail, ta luraltzeka itxi ebazan. Eta bera, Jaun-goikua'ren zigora buru-ganian beti eukalako, eririk-eri ta uririk-uri Egito' ra jatsi zan. Baña ez emen lotuteko. Lastertxe igesi biar-zan. Lakedaimaren erira, abendaidiak zirala-ta, jo eban. Baña berton, be, ezeban iñorbatek artu gura; ta bariro ona-ara igeska, gustijak goroto ebela ta gustijak eurenetik egozten ebela, abendaidien eta arotzen birauaz il zan. Eta ilda gero, ezeban iñorbatek iortzi edo luraldu; ta bere gorputza usteldula, baso-piztijak eta axe-egaztijak jan egin eben. Bestiai lura obitzat ukatu eutsenak, ez aberijan ez atzerijan ezeban lurik, ilda gerorako, euki, ta pizti-egaztijen alikaturea ixan zan. Aberi-saltzaliak irabazi eban nekala artu eban.

Ikasi zubek, Euzkadi-saltzale oyek.

OMABEITIA'TAR KARMEL.

# BIYOTZ-BERAZ

Ilunabara zan. Txadona arkitu nuan ilun, utsik,
bere itxura astunak izutzen zuelarik...;
ondi-nagusian zinzilik, gaimel-argi-ila,
Jaunaren oroigari zegon argi zurbila;
eta deun-irudiak orma zabaletan
azaltzen ziran guztiz kereis itzaletan.

—

Txadona zan... ta ustakidaro nintzan baruratu,
*ta nere otoitz txiroa Jauna'ri zuzendu;*
nun berealaxe, ta bastertso batetik,
*negar-zotin-lariyak nigana eldurik,*
konturatu ninduen txadon eder artan
ez nintzala arkitzen nerau bakarikan.

Iluntasun artara begiyak oitu edo...
geyago ikusten nuan sartu nintzanian baño;
eta zotinak zetozen alderontz begiraturik,
ikusi nuan gizon bat eskutuan jaririk,
belaunbiko, arpegia eztalduaz eskuakin...
*negarez, zotinka samintasun aundiakin.*

—

Gizon bat negarez... ta txadon batian...
¡ez-dakit zer igaro zan nere biotzian!...
bai baña orduan gure Uskurtz deuna
azaldu zitzaidala ezer dan maitagariena,
ba biotz atsekabetua gotaz-arkitu-nairik
beregana eldu zan gizartetik igezturik.

—

Iñoren negar-malkoak, ¿nor ez-du samintzen?
oyek legortu naya, ¿nori etzayo sortzen?
*iduritzen zaignia malko ain garatzak*
tantaka dijoazela uratzen negartuen biotzak:
ta alegintzen gerade gaxuak pozkidatzen,
beren malko samiñak maitaro legortzen.

—

Ai banan gizon ura, negarez ikusi nuan...
erukia baño zerbait geyago sortu zan nigan...;
ez-dakit iduritu zaidan ezer ain ederik,
zein da, gizajo aren biotza, negarturik;
¡ta ixilka-ixilka txadonetik aldendu nintzan...!
gizon arek antxen bakarik... ¡negar egin zezan!

TENE.

# Balendin deunaren ereserkija

BESKUNA

Agur Balendin Berio-Otxoa
Zaindari maitegarija,
Zeure egapian zaindu egixu
Euzkotaren enderija.

I

Gustijok gatoz zeure aurera
Pozturik Balendin deuna,
Abestijakaz alkaren leyan
Goresteko zeure ixena.
Geuganatuxuz, aren, begijak
Ta erukituta oparo
*Eskar, zoruna emoguzu ta*
Zorigaiztua galazo.

II

Gure asabak zeure egapian
Zorunez bixi ei ziran,
Zeure bitartez ezeben euki
Zorigaiztorik erijan,
Tira, Balendin, zaindari deuna,
Aren, eruki zakiguz
*Eta betiko zeure egapian*
Arduraz jabon gaikezuz.

III

Zeukon ugari Euzko endako
Odol gardena zanetan,
Bata Euzkeraz zeure Amari
Gogoz idazten zenduan:
Berio-Otxo'tar Balendin deuna
Beraz Euzkadi jagozu
Jaungoikua eta Lagi-Zara
Bata azkatasuna aldeztu.

MAZELAGAN'DAR AYA.

# Abertzale zindua

Epala'ko gau ixugarija zan. Bederatzijak-inguru. Iper-axe min-miñak sura gazituta, belarijak ebagita arpegija ixoztuta jartzan. Etzan iñor otz. Auteskunde-aldija zan.

—¡Dan... dan!...

—¿Nor da?

—Neu.

—*(Baruban).* ¡Ola! Gabon.

—¿Zer dagixube?

—Ba... aberiai jaten emon eta erosarijua erezau ta oera giñoyazan. ¿Eta zeuk? ¿Zer dabiltzu ain belu?

—Ba... botua-eske nentoren.

—Aora. Ni abertzalia naz, bijotzian sortu ta sartuta daukat abertzaletasuna, ta eneuskio botorik abertzaliari baño emongo.

—Ba... ugezabak.

—Ezayozu ugezabari, etxian sartu nintzanian, enintzala ni botua emoteko itundu, erentia ordaindu edo pagetako baño.

## Zer egiten duban

*Iñese.* —Miren neuk be *Motriko'ko Ulazia'ren txokolatia* artzen dei orain.
*Miren.* —¿Eta?
*Iñese.* —Berdin-gabia da edertasunian eta eztel besterik artzen.

## Rousse ta lagunak

*Ledesma-15'ka. 1458'g. urutizkiña (telefonua)*

Ikatz eta patata-biltegi andijak. Batez-be ereteko patatak.

## "La Cervecera del Norte" -- Bilbao

**Munich, Orija ta Argija gararduak**

## ARANTZALIAK ¡¡E... UP...!!

*Ilero edo loru onen eta bikañenetakuak,*
*Nai dan lodieran: 0, 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7 ta 8'kuak.*
*Iñon ere ez merkiago. Nun nai ere ez obiago.*
*Eskatu lenbailen, ba, bestela batere gabe zera.*

ARASATE'TAR IMANOL.
MOTRIKO-GIPUZKOA.